

X IZPIAK

1. AURRETIKO GOMENDIOAK: Ez da prestakuntza berezirik egin behar. Prozedura hasi aurretik komunera joatea gomendatzen da, Irudi bidezko Diagnostikoaren eremuan ez baitago komunik.

2. IRITSIERA ETA ERREGISTROA: Joan zaitez adierazitako itxarongelara, eta erradiologiako teknikari batek hartuko zaitu. Prozedura azalduko dizu, eta X izpien aretora bideratuko zaitu.

3. PRESTAKUNTZA FISIKOA: Aztertu beharreko eremuaren arabera, beharbada arropa batzuk eta zenbait osagarri (bitxiak, gerrikoa, etab.) kentzeko eskatuko dizute.

4. PROZESUA: Teknikariak posizio egokian jarriko zaitu, zure medikuak eskatutako erradiografia lortzeko.

5. SEGURTASUNA: Erradiografia egiteko, teknikaria kontrolgunera joango da. Elkarte zientifikoen eta babes erradiologikoko adituen gomendioen arabera, ez da beharrezkoa babesgarriak erabiltzea X izpien erradiografiak egiteko.

6. AMAIERA: Proba amaitutakoan eta irudia ongi atera dela egiaztatu ondoren, joan zaitezkeela esango dizute.

7. EMAITZAK:

- Erradiografia zure medikuari bidaliko zaio zuzenean, azter dezan.
- Adimen artifizialeko programa bat erabiliko da erradiografiak aztertzeke eta hezurretako hausturak detektatzeko.
- Medikuak adimen artifizialaren emaitza berrikusiko du, eta behin betiko diagnostikoa egingo du.

8. OHAR GEHIGARRIAK:

- Haurdun bazaude edo egon zaitezkeela uste baduzu, garrantzitsua da medikuari edo teknikariari jakinaraztea, prozedura egokiak aplikatzeko.
- Eremu berean erradiografia bat egin badizute berriki, jakinarazi teknikariari, eta informazio horrekin nahikoa den ebaluatuko dute.

